

## Ideologia eta biolentziaren legitimazioa erlatibismo garaian Unibertsaltasunari uko egiteko prest al gaude?

*Aritz Aramendi*  
Filosofian graduatua

Artikulu honen nondik norakoak ulertzeko, Gradu Amaierako Lanean jorratu nituenak kontuan hartuz hasiko gara. Bertan, metodo dialektikoaren inplikazio praktikoen azterketa bat egin nuen, Kanten planteamendutik hasi, Hegel eta Marxekin jarraitu eta azkenik XX. mendeko hainbat irakurketaz baliatuz. Bertatik atera nuen ondorio nagusia hauxe izan zen: dialektikak, koherente izateko, ezin du filosofiaren teorikotasun hutsean geratu, praxi politikoaren beharra du. Filosofiaren teorikotasun huts eta partzialaren mitoari nolabait ere kontrajarriz, filosofiak agente politiko/ideologiko moduan jokatzeko duen rolaren funtsezkotasuna azpimarratuz bukatu nuen lan hura. Ondorio nahiko agerikoa, nolana ere. Handik hilabete batzuetara, *Demokratak eta biolentoak* irakurtzen hasi nintzenean, ez zitzaidan gehiegi kostatu Azurmendiren obratik nire ikergaiari jarraitutasuna emango zion haria topatzea. Gradu Amaierako Lanean halaber beharrez hitz egin behar izan bainuen balioen absolututasunaren ziurtasun ezaz, baita ziurgabetasun horretatik praxi politikoa justifikatzeko zailtasunez ere.

Liburua irakurri eta geroko hausnarketetan murgilduta nengoela, bertan irakurritako esaldi bat zetorkidan behin eta berriz burura, aurretik nituen hainbat pentsamendu bildu eta era biribilean formulatzen zituen esaldi bat, hain zuzen ere. Biolentzia 'on' baten aukera fedea soilik ematen duela dio Azurmendik (1997). Gizarte honek azken hamarkadetan zerbait galdu badu, ordea, fedea izan da. Hona hemen aurtengo ikasturtean ikertu beharreko tesiaren abiapuntua. Esaldi horrek erantzungo lukeen galdera, berriz, gerra justua egon ahal daitekeen izango litzateke. Galdera hori ez da, inondik inora, bizi dugun aro garaikideari soilik erantzutea egokitu zaion galdera bat. Biolentziaren erabileraren aurrean kontuak eman beharra ala kontuak eskatzea elkarbizitza bera bezain zaharra da, ziur aski. Gure herrian, ordea, badirudi kontuak eman eta eskatzearen joko honetan bereziki trebatuak izan garela.

Trebatze horretatik zerbait ikasi badugu, hauxe da, hain zuzen ere: kontuak eman eta kontuak eskatzearen proportzioa ez da berdina. Batzuek kontuak eskatzen dituzte batere kontu eman gabe, eta besteek, ordea, kontuak ematen dituzte kontuak eskatzeko aukerarik gabe. Egoera horrek ez liguke, printzipioz, buruhauste handirik emango biolentzia noranzko bakarrekoa izango balitz eta kontuak eman behar dituen biolentzia erabili duena izango balitz. Hartu indarkeria matxista kasu bat. Halako kasu batean, ez genuke zalantza handirik edukiko erasotzaileak kontuak eman behar dituela

esaterakoan. Erasotuak, berriz, ez luke konturik eman beharko. Noren aurrean eman behar ditu, ordea, kontuak erasotzaileak? Botere judizialaren aurrean, legearen aurrean, estatuaren aurrean, azken finean. Erasotuak justizia bere esku hartzea justifikatzeko egoera zaila suertatzen zaigu. Kontuak edozeinek eska ditzake, baina estatuaren aurrean gaude soilik kontuak ematera behartuak. Kontuen norabidea beti estatura bideratuta dagoela dirudi, nolabait.

Oraingoz ez gara estatuak kontuak emateko duen beharraz eta baliabideez mintzatuko. Oraingoz axola zaiguna estatuaren izaera kontu eramailea da, nolabait esatearren. Pentsa dezakegu biolentzia bi aldetatik erabili den auziren bat ere, droga trafikatzeko ogibide duten bi talde kriminalen artekoa, adibidez, kontu-garbitze horietako bat, hain zuzen ere. Horrelako kasu batean, argi ikus dezakegu estatuaren rola. Nahiz eta bi bando horiek elkarren artean dituzten kontuak beraien kabuz garbitu, horretarako biolentzia erabiliz gero, estatuak ezin du onartu kontu garbitze hori zilegi denik. Max Weberri jarraituz, estatuak ezin du onartu bere buruaz gain beste inork biolentzia era legitimoan erabili ahal duenik (Weber 1919). Aurreko kasuan bezala, estatuari onartezina zaio norbaitek justizia bere gain hartzea, justiziaren aurrebaldintza estatuak berak emandako eta kudeatutako legea baita. Estatuaren ikuspuntutik, justizia eta zuzenbidea banaezinak dira.

Estatuak eta bere legeak duen izaera kontu eramaile hori ulertzeko, Alain Badiouk egiten duen moduan, multzoen teoria matematikoaz baliatzea eraginkorra izan daitekeela uste dut (Badiou 2014). Ikuspegi horri jarraituz, ez genuke legea auzi juridiko soil baten moduan hartu behar, horrez gain legeak ontologia bat ezartzen duela pentsatu beharko genuke. Legea existentzia hautu bat da, gizartea osatzen duten banakoen antolaketa multzokatu bat. Multzo definitu horietatik kanpo geratzen den edonork ez du izenik estatuarentzat, munstro moduko bat litzateke. Zer da, bada, munstro bat, raziionaltzat jotzen dugun gauzen antolaketa betetzen ez duen izaki bat baino? Munstroak, horrela, ikara sortzen digu, bere agerraldira arte zuzentzat jo dugun antolaketa zalantzapean jartzen baitu. Bere agerraldiak berak legea bortxatzen du. Munstroak, beraz, legeak raziionaltzat ezartzen duen sailkapen hori zalantzapean jartzen duenez, ezin du estatura jo hori kontuak garbitzeko instantzia gorena balitz bezala. Lehenik, estatuak ez duelako hizlari legitimoztat aitortuko aurretik ezarritako multzoetan sailkatua ez badago; eta, bigarrenik, munstro izaera horrek, izaki hori estatuaren legetik kanpo kokatzean, estatuari aurrez aurre begiratzera behartzen duelako. Lehen esan dugun moduan, ordea, estatuak ezin du onartu ez bere gain ez bere pareko inork bere zuzentasuna zalantzapean jar dezakeenik. Hala balitz, bere bortxaren legitimotasunaren monopolioa galduko luke. Ez litzateke kontuak kudeatzeko instantzia legitimo bat eta bakarra.

Hori guztia argitzeko, bi adibide aipatuko ditut jarraian. Lehena trans pertsonen auzia da. Bigarrena berriz, estaturik gabeko nazioena. Trans pertsonen auzian, nahiko garbi ikus daiteke legeak pertsonak bi multzotan sailkatzera nola behartzen gaituen. Nortasun agirian bi aukera soilik daude, gizonezkoa izan ala emakumezkoa izan. Dikotomia horretatik kanpo kokatzen denak ez du izenik. Izenik gabeko multzo horren existentzia aitortzeak berak, izena emateak, aurreko bi multzoen zuzentasuna zalantzan jartzen du. Trans pertsonen, genero bereizketa dikotomikotik kanpo geratzean,

bereizketa horren razionaltasunaz galdetzeraz behartzen gaituzte. Aurrez ezarritako multzoetan sailkatu ezinezkoaren agerraldiarekin agerian geratzen da sailkapenaren kontingentzia.

Estatuak gabeko nazioei dagokienez ere antzeko zerbait gertatzen dela ikus dezakegu. Kasu horretan, berriz, nazio-estatuaren paradigma da zalantzapean jartzen dena. Estatuak ezarritako multzokatzean sailkatzen ez den talde bat multzo propio bezala aldarrikatzea. Hemen ere pentsa ditzakegu estatu konfederalak, plurinazionalak... Ez naiz horretan sartuko gaurkoan. Har dezagun oraingoz espainiar estatua adibide gisa. Hau idazten ari nintzen astean, ERC PSOeri kataluniar eta espainiar gobernuak aurrez aurre, parez pare, negoziazio mahai batean esertzea eskatzen ari zitzaion; espainiar estatuak, ordea, ezin du onartu mahai horretan bere parekiderik. ERC espainiar estatua bera oinarritzen duen sailkapen hierarkikotik kanpo ari da kokatzen. Katalunia espainiar estatuaren multzoa osatzen duten azpimultzoetako bat izanik, azpimultzoa multzo nagusiaren pare jartzeak multzo eta azpimultzoen sailkapena baliogabetzen du. Espainiar estatuko legearen baitan, Kataluniak azpimultzo moduan soilik du bere izatea. Kataluniar gobernuak espainiar estatuaren pareko multzo moduan aitortzen duen negoziatio mahai bat munstro bat litzateke legearen begietara.

Rancièrek, *La Méésentete* liburuan, multzo munstro horren agerpena politika berarekin identifikatzen du. Bi logika moten arteko talka: alde batetik, gizarteko gorputzei ordena bat ematen dien logika, legeak ezarritako ordena razionala; bestetik, denongan dugun hizkuntza gaitasunak inplikatzeko duen logika berdintzailea, gorputzen antolamendu horren kontingentzia agerian jartzen duena (Rancièr 1996 [1995]). Bi logika horien arteko talka izate aitorturik gabeko multzo horretan gertatzen da, hain zuzen ere. Logika berdintzaileak estatuari kontuak eskatzea ahalbidetzen du arbitrarioki ezarritako ordena sozialarengatik, zuzenbidearen eta justiziaren arteko desberdintasuna agerian jarritz. Horrela, Rancièreri jarraituz, aitortu gabeko multzoak estatuari kontuak eskatzearen jokoan datza politika. Lehen esan dudan moduan, ordea, estatuak ezin du aitortu gabeko multzo hori hizlari legitimo bezala aitortu; horrek legitimotasunaren monopolioa ukatuko lioke, eta, beraz, ez dago haren aurrean kontuak ematera behartua. Era horretan, aitortu gabeko multzoaren izatearen aitortzarengatik borrokan jokatzeko da politika, interes desberdinen arteko gatazkan.

Teoria horrek estatuari jatorrizko biolentzia bat egotzen dio, zeinaren bitartez multzoen antolaketa jakin bat ezarri duen. Demokrazia modernoa oinarritzeko hain erabilia den kontratu sozial baketsuaren ideien kritika bat da, funtsean; edo, hobe esanda, konstituzionalismoaren kritika bat. Jatorrizko biolentzia horrek posible diren gizarte antolaketa ezberdinak era razionalen pentsatzeko aukera ezabatu eta legeak ezarritako ordena soziala beharrezko moduan agerrarazten du. Adibide moduan, Azurmendik ondo adierazten du demokraziaren aurka egotea ez zaigula aukera razional bezala ematen; are gehiago, «de fakto demokraziaren aurka egotea posibilitate razional bat bezala pentsatu ezin den gizartean, ezin esan daiteke, razionalki pentsatzen dela demokrazia» (Azurmendi 1997). Horretarako, nahitaez, estatuak indarrez ezarri beharko ditu mugak han eta hemen. Biolentzia estrukturala dei geniezaioke. Behin estatua bere horretan finkatutakoan, ordea, muga horien hasiera bateko artifizialtasuna ezabatu eta natura berri bat bezala aurkezten dela esan daiteke. Honetan datza, hain

zuzen ere, estatuaren izaera ideologikoa, kontingentzia beharrezkotasun bihurtzean. Sailkapen horrek egiten duen bihurtetako, Rancièreren terminotan, jatorrizko *distortsio* bat suposatzen du. Gizarteko gorputzen sailkapena egitean, badaude berezko titulua duten multzoak, ezaugarri positiboak dituztenak. Bestalde, berezko titulurik gabeko hiritarrak daude, hiritartasuna dutenak titulu bakartzat. Hiritartasun hori, ordea, ez da beraiei soilik dagokien titulua, gizarte osoari baizik. Bestalde, esan dut hemen, multzo propioa duten horien aldean beste multzo espezifiko bat ez osatzea da bere funtsezko ezaugarria, hain zuzen ere. Aberastasuna edo bertutea oinarri, berezko izena dutenez gain, herriaren osotasunarekin soilik identifikatu ahal direnen multzoa. Determinazio positiborik gabeko gizaki abstraktuak.

Multzo propio gabekoen multzo horri izatea aitortzeak, beraz, gizartearen sailkapena sailkapen oker moduan agerrarazten du. *Distortsioa* multzo hori ezkutatzeko datza, era horretan gizarteko parteentzako oker bezala ager ez daitezkeen. Politika *distortsio* onen azalerapen moduan ulertzen du Rancièrek. Izaki abstraktu horiek, hizkuntza gaitasunaren logika berdintzaileaz baliatuz, legearen sailkapenaren beharrezkotasun itxura eten eta sailkapenaren okertasuna eta kontingentzia agerian jartzen datza jardun politikoak.

Azken hori argitzeko, bi adibide datozkit burura. Lehen adibidea, *Demokratak eta biolentoak* liburutik eratorria, Frantziako Iraultzatik sortutako hiritartasun ideien ingurukoa da. Lehen adibide honetan, unibertsaltasun abstraktuak dakarren alde negatiboa agertzen zaigu. Demokrazia modernoetako hiritartasunak familia, auzoa edo herria bezalako elkargo naturalak ezabatu dituela dio Azurmendik (1997). Paperezko gizabanako abstraktuak sortu. Hiritartasun eredu hori nazionalismo kultural baten kaltetan da, noski. Nortasuna eduki errealez hustuta geratzen dela esan genezake.

Bigarren adibidea Marxek langileria klase unibertsal moduan deskribatu izana da. Lehen adibidean abstrakzio prozesuaren alde negatiboa ikusi dugun moduan, bigarrenak abstrakzio prozesuaren baldintzen baitan praxi politikorako sortzen diren aukerak jartzen dizkigu begi-bistan. Zerk ahalbidetzen du langile klaseari izaera unibertsala aitortzea? Lan konkretutik lan abstrakturako jauziak, hain zuzen. Lan konkretu baten ezaugarri positiboez harago, soldatapeko lanaren baitan langile izatea lan indarra saltze soilarekin identifikatzen da, era horretan lan desberdinen arteko desberdintasun kualitatiboak ezabatuz. Produkzio bitartekoen jabeak bakoitzaren jabeago determinatu eta positibo horretaz baliatuz identifikatzen dira; langileak, berriz, langile bezala sistemaren osotasunari erreferituz bakarrik identifikatu ahal dira. Hau da, sistemaren multzo partikular batean unibertsaltasunaren haragiztapena.

Lehen munstroak aipatu baditugu ere, klase unibertsalaren agerraldia ez litzateke munstroarenarekin konparagarria izango. Munstroak ez du unibertsaltasun baten izenean kontraesaten legeak ezarritako sailkapena. Klase unibertsalak legeari jatorrizko zaion *distortsioa* azaleratzen du sailkapenaren erraietatik bertatik aterata. Hiztegi paranormalarekin jarraituz, Derridak bezala, agian mamu bezala identifika dezakegu klase unibertsala (Derrida 2012). Edo Marx eta Engelsek ere Manifestuari hasiera ematen dion esaldi ospetsu horretan bezala: «Mamu bat dabil Europan barrena – komunismoaren mamua» (Marx 2004). Mamuak, munstroak ez bezala, guregandik sortu eta gure artean bizi dira. Munstroaren agerpena berriz ez da sailkapenaren

barnean gertatzen, munstro izateak jada kanpoan egotea suposatzen du. Hortaz, horrek estrategia politiko desberdina eskatzen du.

Bi estrategia politiko desberdin ditugu orduan, bata mamuena eta bestea munstroena. Bien oinarrian dago jatorrizko distortsioa azaleratzea. Munstroaren agerpenak arrazoimen desberdinen arteko aurkakotasuna eta bien arteko talka suposatzen du. Aurkakotasun hori era desberdinetan ebatz daiteke, baina ez du bere horretan aurkakotasun horretatik harago doan ebazpen baten zantzurik. Mamuak, berriz, zentzu transzendentea du, eskatologikoa; jada ez den edo oraindik izateko dagoen zerbait irudikatzen du, ez da aurkakotasun soilean geratzen. Paranormalkerietan gehiegi trabatu gabe esan dezakeguna honakoa da, estatu modernoaren harira sortutako unibertsaltasun eredu horri baliagarritasun politikoa egozteak ala ukatzeak bide desberdinetatik garamatzala. Kontua ez gehiegi korapilatzearen, bi bide horien nire ikuspegia azalduz bukatuko dut.

Distortsioaren azalerapena balioen unibertsaltasun baten baitan artikulatzeko bidea hartzen badugu, antolaketa hobeago baten izenean egin beharko dugu halaberharrez. Hobeagotasun hori justifikatzea, ordea, ez da lan makala inondik ere. Esku hartze politikoa moralki a posteriori bakarrik justifikatu daiteke, hau da, ezarri nahi den balio sistema berri horretatik. Horren aurretik, hobeagotasunarekiko fede edo esperantza bati esker bakarrik hitz egin dezakegu. Gaur egun eskas dugun hori. Horrela, biolentziaren justifikazio bakarra egoeraren jasanezintasuna da. Egoeraren jasanezintasunak dakarren esku hartzeko beharretik, esku hartze horren moraltasun batez hitz egitera iritsi ahal izateko borroka zelai ideologikoaren erlatibismoan murgildu beharra dago. Egoeraren jasanezintasunak esku hartzearen beharrezkotasunaren momentu subjektiboa dakar. Beharrezkotasun subjektibo horretatik esku hartzea legitimatu dezakeena hegemonia ideologikoa da, hain zuzen. Klase kontzientzia zabaltzea, beraz, borroka zelai ideologikoko estrategia nagusi bihurtzen da.

Bestalde, praxi politikoan unibertsaltasun modernoari uko egitea erabakitzen badugu, nolabaiteko erlatibismo moral bat erabili beharko dugu praxi horren inguruan kontuak eskatzen dizkigutenean. Erlatibismo gudazale nietzschearetik harago, aberasgarria dirudi balio sistema desberdinen arteko hasiera bateko talkak, aurkakotasun hori gainditzearen, norberaren balioak birmoldatzera behartzen gaituela pentsatzea. Balio batzuk alde aurretik unibertsaltzat jotzea dela, hain zuzen ere, talka sortzaile hori ekiditen duena, alteritateari zuzenean gerra deklaratu. Erlatibista bakezaleen diskurtsoa litzateke horrakoa, desberdinen arteko kontaktuak biak hobetzen gaituela uste duena. Estrategia horrek, ordea, badu ahulgune garrantzitsu bat. Munstroek ez dute estatuari gerra deklaratu edo baketsu jokatzeko hautua egiteko aukerarik, estatuak munstroei gerra alde aurretik die deklaratu; beraz, utz iezadazue hautu hori, eraginkortasun estrategikoaren aldetik soilik bada ere, zalantzan jartzen.

Ikus dezakegunez, bi planteamendu horiek onartzen dute nolabaiteko erlatibismo bat. Erlatibismo hori zuzenbidearen eta moralaren arteko gatatzatik eratortzen da. Arrazoimena estatuak ahalbidetzen duela onartzen badugu, zuzenbidea moralaren aurretiko agertuko zaigu, kode moral komun baten aurrebaldintza. Legea bera, ordea, biolentziaz lortutako boterea egonkortzeko tresna litzateke, eta morala absolutu bezala agertzen zaigun indartsuenaren legea. Morala, beraz, ez da absolutua, boterearekiko

erlatiboa baizik. Horrek esku hartze politiko biolentoa justifikazio beharretik libratuko luke. Morala boterearen erreminta soil moduan ulertuta, beraz, pentsa genezake boterearengatiko borrokan denak berdin balio duela. Behin botereak ezarritako moral hori ukatuta, ez baitago beste erreferentzia moralik boterearengatiko borrokan eginikoa epaitu ahal izateko. Hasiera batean, ordea, ez dirudi baiespen hori onargarria denik. Nola salba genezake orduan politika gerrara murriztetik moralismo absolutistaren ideologikotasuna onartuta?

Ondorio bezala, honako hausnarketa hau besterik ez dut. Politikan erlatibismoa ekiditea ezinezkoa iruditzen zait, beharrezkoa politikan jarduteko. Lehen esan bezala, politika interes desberdinen arteko borrokan ulertzen dut, natural eta beharrezkotzat jotzen dugun horren erlatibotasun edo kontingentzia azaleratu eta ordena berri bat ezartzeko jokoan. Erlatibismo hori, ordea, ez da behin betikotzat hartu behar, noski. Ordena unibertsal berriak artikulatzeari uko egiteak justizia eta politika behin betiko aldentzeko lituzke, azken hori gerra soilera murriztuz. Kontuan eduki dezagun gaur egun bereziki indarrean dagoen erlatibismo bakezalea alde aurretik deklaraturako gerra hori ezkutatzeko gortina paregabea izan daitekeela. Argi desberdindu behar ditugu hemen balioen unibertsaltasuna eraikia dela esateak inplikatzeko duen erlatibismoa eta balio unibertsalik ez lukeela egon beharko baieztatzen duena. Balio bat eraikia izateak ez dio zertan unibertsaltasuna ukatu.

Amaitzeko, autokritika pixka bat egitea gustatuko litzaidake. Ni neu ere ez nago ziur idazki honetan aipaturako arazoen erantzunaz. Batez ere, ideia horietatik taxuzko ikerketa lan bat atera ahal izateko, ikerketa esparrua mugatzeko beharra dudala ikusi dut. Hala ere, aitortu beharra dut testu hau idaztea benetan lagungarria izan dela datozen hilabeteetan landu beharreko hainbat kontzeptuz ohartzeko eta proiektuaren nondik norakoak ezartzen hasteko.

## ***Bibliografia***

- Azurmendi, J. (1997): *Demokratak eta biolentok*, Donostia, Elkar.
- Badiou, A. (2014): *Filosofía y política. Una relación enigmática*, Buenos Aires, Amorrortu.
- Derrida, J. (2012): *Espectros de Marx. El estado de la deuda, el trabajo del duelo y la nueva internacional*, Madril, Trotta.
- Marx, K. (2004): *Karl Marx. Idazlan hautatuak*, Bilbo, Klasikoak.
- Rancière, J. (1996 [1995]): *El desacuerdo. Política y filosofía*, Buenos Aires, Nueva Visión.
- Weber, M. (1919): *La política como vocación* ([www.copmadrid.es/webcopm/recursos/pol1.pdf](http://www.copmadrid.es/webcopm/recursos/pol1.pdf)).

## **JAKIN**

Martin Ugalde Kultur Parkea  
 Gudarien etorbidea, 29  
 20140 ANDOAIN  
 943 21 80 92  
[jakin@jakin.eus](mailto:jakin@jakin.eus)  
[www.jakin.eus](http://www.jakin.eus)